

Ondo lotutako korapiloa

BAKE NEGOZIAZIOAK KONGON. Astelehenean hasi ziren, eta astebete egingo dute negoziatzen Botswanan, Konstituzioa idatzi eta bozetara deitzeko. Gobernuak, alabaina, oraingoz ez du hauteskunderik nahi.

Idoia Etxeberria | DONOSTIA

Bake negoziazioak astelehenean hasi ziren, Gaboron. KED Kongoko Errepublika Demokratikoko ordezkariak bildu ziren mahaian bueltan: Joseph Kabila presidentea eta Gobernuordezkariak, oposizioko bozeramaileak, herri elkarteetako kideak, eta, nola ez, bi gerrilla nagusietako ordezkariak. Zambiako Frederik Chiluba eta Botswanako Festus Mogae presidentek dira bake bitartekari. Konstituzio berria idatzi eta bozetara deitzea dute xede elkarriketek, duela hiru urte hasitako gerra zibila amai dadin.

KEDeko Gobernuak, alabaina, hurrengo hiru urteetan bozik egongo ez dela esan du. Leonard She Okitundu Atzerri ministroaren arabera, lehenengo erreferendumez erabakitako errolda berria eta Konstituzioa dira beharrezko, Kongo ez baitago bozetarako prest. Bestalde, negoziazioak Botswanatik Kongora eramatea proposatu zuen. Gerrillariak eta oposizioak ez zuten begi onez hartu ministroak esandakoa.

Laurent Kabilak bozetara deituko zuela esan zuen 1997an boterera iritsi zenean, baina inoiz ez zuen esandakoa bete. 2001eko urtarrilean bere bizkarzainetako batek hil zuen estatuburu, eta haren seme Joseph Kabila da egungo presidentea. Berak bultzatu ditu negoziazioak. Pauso handia da, baina zaila izango da korapiloa askatzea; izan ere, inguruko sei herrialdek dute zeresanik eta interesik Kongoko gatazkan, eta ez daude elkarriketa mahain. Ruanda, Uganda eta Burundi gerrillarien alde daude; Zimbawe, Angola eta Namibia, aldiz, Gobernuarekin bat datoz.

1994an Ruandak, gerrillari kongotarren laguntzaz, lortu zuen Joseph Mobutu diktadore Kongoko boteretik botatzea; 1994an hutuek milaka tutsi hil zituzten Ruandan, eta egungo Kongon babestu ziren, gero. Ruandako tutsien gobernuak mendekua nahi zuen. Hala, Laurent Kabila gerrillari botererako bidea ireki zitzaion; 1997an egin zuten presidente, eta Zaire Kongoko Errepublika Demokratikoa izan zen aurrerantzean. Gobernu armadan 15.000 hutu inguru zeudela eta, Ruandaren etsai bilakatu zen laster, orde. 1998ko abuztuan piztu zen gerra zibila Kongon. Ekialdean



ABDELHAK SENNA / EPA

Ruandar jatorriko matxinatu tutsia, Goman; 1998ko abuztuko errebolaren garaiko argazkia.

GOBERNUA


Kongoko Gobernuak ez du bozetara deituko datozen hiru urteetan; Konstituzio berria idatzi beharko litzateke, lehenago

hasi ziren errebolak; tutsi kongotarrek RCD Kongoko Demokraziarako Batasuna taldea sortu zuten, eta Ruandaren babesaz Gobernuari erasotzen hasi ziren. Zimbawe, Namibia eta Angolako soldaduek geldiarazi zituzten. 1998ko irailean, berriaz, Ugandaren babesaren duen FLC Kongo Askatzeko Frontea gerrilla hasi zen Gobernuaren aurka borrokan. Istiluek ez dute etenik izan gaur arte; Nazio Batuetako bitartekaritzak ere ez du askorako balio izan. 1999ko uztailen Lusakako su-etena hitzartu zen, baina inork ez zuen bete. Egun Kongoko Errepublikaren erdia inguru dago Gobernuaren menpe; beste erdia, berriaz, gerrillarien esku. Lehen aliatuak ziren bi gerrilla nagusiak, hala ere, orain ez dira lehen bezain ondo konpontzen.

1960an sortu zen Kongoko Errepublika Demokratikoa, baina ez du oraino demokrazia ezagutu. Belgikaren uztartirik askatu bezain pronto hasi ziren istiluak. Belgikak eta EEBBek Kongoko mineral eta aberastunak kontrolatzen jarraitu nahi zuten. 1961ean Patrice Lu-

Kongoko gatazka

Indarren banaketa



mumba lehen ministroa torturatu eta hil egin zuten, Joseph Mobutu koronelaren aginduz. 1965ean Mobutuk boterea lortu zuen, estatu kolpe bati esker. Kongoko Errepublikari Zaire deitu zion. 1970ean bihurtu zen Mobutu Zaireko presidentea, eta hiru hamarkada egin zituen izua eta mina hedatzen. Soldaduek herritarrei nahi zuten dena kentzeko eskubidea zuten: *kleptokrazia*. Aurkariak 1994an lortu zuten Mobutu garaitzea.

Diamanteen alde iluna

Belgikako errege Leopoldo II.ak bere inperio bihurtu zuen Kongo 1885erako: «Ez dut nahi Afrika pastel zoragarriaren zati-

ren bat geure egiteko aukera galtzerik», zioen eskutitz batean. Leopoldo II.ak gupida gabe esplotatu zituen lurak eta bertako biztanleak. Hark egindako sarraskiak hain ziren lazgarriak Londres eta Bruselas inarrosi zituztela; baina erregea geldiarazi zutenerako, kaltea egin zegoen: ehunka herri suntsitu zituen, hiru milioi herritar hil.

Kongo herrialde handia krisian dago ordutik. Diamanteak, petrolioak eta urreak aberastuna barik zorigaitza ekarri diote. Kongotarrak herrialde txiroagoetako biztanleak bezain gaizki edo okerrago bizi dira. Denek nahi duten pastela azkean ez baita inorentzat.

BI FRONTEAK

Bizilagunek biziutako gatazka

Bizilagunek zeresan handia dute Kongoko Errepublikako gatazkan. Izan ere, diamanteen herrialdea oso da erakargarria. Hona hemen korapiloaren gainean korapiloa egiten lagundu duten herrialdeak:

RUANDA. Ruandako soldaduek 1994an sartu ziren Kongora, Ruandako tutsien genozidioaren egile hutuak bertan ezkatututa zeudela. Mendeku bila jo, eta Laurent Kabilari ireki zioten Gobernu bidea. Alabaina, gerora Kabila euren etsai bihurtu zen, milaka hutu bere armadan babestu zirelako. RCD gerrillaren alde dago Ruanda.

BURUNDI. 15.000 burundiar inguru daude Kabilaren armadan, Burundiko Gobernuaren aurkariak gehienak. Horregatik, Burundi Kabilaren aurka dago, nahiz eta ez duen aferan gehiegi esku hartzen; izan ere, etxeko gerra zibilarekin aski du Burundik.

UGANDA. Yoweri Museveni Ugandako presidentea bultzatu du uneoro Kongoko Gobernuaren aurkako jarduna. Ugandar asko aberasten ari dira Kongoko lurren kontura. MLC Kongo Askatzeko Mugimenduko gerrillariak dute Ugandaren babesaren.

ANGOLA. Angolako Gobernu Jon Savimbiren UNITA Angolaren Independentzia Osorako Batasun Nazionala mugimenduaren aurka ari da borrokan aspalditik. UNITAko kide asko Kongoko hegoaldean daudenez, Angolak Kabilaren aldeko apustua egin du, horrela aipatu mugimendua kontrolpean izateko.

ZIMBAWE. Robert Mugabe presidentea hainbat hitzarmen eta akordio ekonomiko egin ditu Kabilarekin. 11.000 bat soldadu ditu Kongon Kabilari laguntzeko.